

## BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3892

*EBAZPENA, 2011ko ekainaren 15ekoa, Energia eta Meategien Zuzendaritzarena. Honen bitartez, «Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, SA» eta «Petrichor Euskadi Coöperatief UA Sucursal en España» enpresek hidrokarburoei buruzko ikerketarako eskatutako «Sustraia» izeneko baimenaren eskaera argitaratzen da.*

Hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 3. artikulua ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoei dagokie, lege horretan aurreikusitakoari jarraiki, hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimenak ematea, baldin eta baimen horiek autonomia-erkidegoen lurralde-eremuari eragiten badiote.

Gainera, Legearen II. tituluan, hidrokarburo-hobien ikerketarako araubide juridikoa ezartzen da, eta gainera hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimenak emateko prozedura xedatzen da. Prozedura horren arabera, besteak beste, hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimenen titularrak izateko ezarritako baldintzak betetzen dituzten interesdunek egindako eskaerak BOEn eta EHAAn argitaratu behar dira.

2011ko ekainaren 10ean, «Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, SA» eta «Petrichor Euskadi Coöperatief UA Sucursal en España» enpresek hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimena eskatu dute, «Sustraia» izeneko, honako koordenatu hauek mugatzen dutena, longitudeak Greenwicheko meridianoa erreferentziazat hartuta kalkulatu direla:

5 espedientea: «Sustraia» baimena, 55.971 hektareakoa, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatua eta honako muga hauek dituena:

Erpina	Latitudea	Longitudea
1	43° 15'00''	2° 35'00''
2	43° 15'00''	2° 20'00''
3	43° 00'00''	2° 20'00''
4	43° 00'00''	2° 35'00''

Eta hori guztia jendaurrean jartzen dugu urriaren 7ko 34/1998 Legearen 17. artikuluan ezarritako xedeetarako, hau da, bi hilabeteko epean, ebazpen hau BOEn eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, beren eskubideak kaltetuta atera direla uste dutenek lehiarako eskaintzak edo ebazpenaren aurkako ekimenak aurkezteko aukera izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 15a.

Energia eta Meategien zuzendaria,  
OSKAR ZABALA RABADÁN.